Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Juanita Ugarte Bilbao

Getxo, Bizkaia (1924)

Aurkibidea

Biografia

Diliz auzokoa da. Baserritarra, esne-saltzailea eta etxekoandrea izan da.

Zintak

GTX-005

- **Proiektua**: IRALEren Bizkaiera Bilduma
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Aginaga Galdos, Amaia - Diez Ramirez, Luis Manuel - Perez Calleja, Karlos - Zabala Mardaras, Mertxe
- **Data**: 1992-10-07
- **Iraupena**: 64 min
- **Euskarria**: Audio Analog
- **Kodifikatzailea**: Unamuno, Arianne

GTX-006

- **Proiektua**: IRALEren Bizkaiera Bilduma
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Aginaga Galdos, Amaia - Diez Ramirez, Luis Manuel - Perez Calleja, Karlos - Zabala Mardaras, Mertxe

- **Data**: 1992-10-07
- **Iraupena**: 63 min
- **Euskarria**: Audio Analog

Pasarteak

1. Erdaraz egin beharra, oso gogorra

- **Erref**: GTX-005/002
- **Iraupena**: 0:01:18. **Hasi**: 00:00:29. **Bukatu**: 00:01:47
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Eskolan erdaraz egin beharra oso gogorra izan zen berarentzat. Goiz eta arratsaldez joaten ziren eskolara, eta dotrinara egunero.

Transkripzioa
Eta txikerratan ibili nintzen /ibilintzen/ horra beheko eskolara, estaziño ondoko eskolara. Ta gero, honek eskolak egin eurezenean /ioresenen/ ayuntamentun, [gu izen] gintzen inaugura gendun hori, ba, Saratxako eskole. Eta dana erdera. Guretzat ez da egon euskerako berba bat iñon bez. Etxen iten gendune bakarrik. Eta gogorra izen zan guretzat eskolara joate. Erdera! [ite] guretzat gogorra izen zan. Eta ezin ulerten gendun... Niretzat izen zan ademas gogorregi, “la pera y el mansana”. Hori izen zan ya, akabu!! Ulertzen dostezu? Ze, klaro, euskera esaten da: "Joan hara sagarpera eta ekarzu sagar bat" edo "Zoaz madarire ta madarik be ostu". Pero "te doy la pera y cojo la manzana", niretzat izen zan gatxa horroroso hori ikisite, egi e! Bai, bai, bai, gatxa izen zan. Eta joaten nintzen ba eskolara, eskolan ordu, ordubietan sartzen zan ordun, bai, bai, bai ordubietan. Bai, eta goizean goizen bederatziten eta hamabiten urten, bai. Eta egunen-egunen dotriñera, eliza bere ez dao asao hemen. Bakizu non eon. Eliza ez dau asao eta dotriñera egunen-egunen joaten gintzen.

2. Euskaraz egitearren burla

- **Erref**: GTX-005/003
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:01:47. **Bukatu**: 00:03:57
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:
Erromeriara Algortara, Areatzara eta Berangora joaten ziren. Ez zuen euskaraz egiten etxean besterik, burla egiten ziotelako. Baserritik bizitzea oso gogorra zela dio.

Transkripzioa
Eta beste genero asko nik eni konta. Ta gero handitxu izen nitzenen, ba, jolastuten. Jolaste... jolasa be ez zan izeten. Izeten zan erromerire, joaten gintzen erromerire, ta

erromeri egoten zan edo Areatzan edo Algortako plazan, ta gero egin euren /ioren/ Berangoko frontoian. Ta han [ibilten] gintzen. Baia beti ibil gintzen burlesari ibilti oskuzen. Ze euskere eiten gendunen horroroso izete. Ademas, gu geure arten gazte izanik nik hamazortzi urte euki dotenen nik ez dot in euskerarik, e? Kanpon. Etxen bai, baia kanpon ez, ze burlesar danak! Igoal jun plazara, ezta? Ta bendeje saltzen. Eta albokoari zeuk esan: "ene! zer, zer eitten dozu /eittezu/ ba? emongo dotset [honeko petzidaunen] emongo dotset /emongotzet/?". Eta: "¿Qué estáis ladrando?" esaten oskun /esateoskun/. Eta keba! Ez gendun /ezkendun/ iten, ze lotsagarri izen zan euskera ite. Ademas, pentsaten... ez... inuzente modun iminten oskuen /imiteoskuen/, inuzentek izango bagintikeze modun. Eta zeozer, badiñotsut, igoal etorri trenati, ezta? Trenan edo ta. Batabatek zapaldu edo holan min ta… “ya habrá sido esta aldeana”. Ta ukutu bere ez guk, e! Ke ba! Baia guri [harri] duzti! Genero torpe eiten zanen duzti, guk izan behar duule /berdule/. Ze ordun izeten zan, baserritarra izenez gero, inuzente seguro izan behar, eta ez da holan, hori ez da /ezta/ holan. Baia baserrin behar baiño hobio hobeo da ez dakit zer bere ein, e? Hain da gogorra! Ta oin, oin bere txarren, txarto egin douzenak dire. Baia gure denporan izen zan negargarrizko genero baserrin ite. Gau ta egun han, gau ta egun. Ta, ademas, ezin saldu eiten gendun generotxu bere. Eron plazara, ezta? ta ezin saldu, ezin saldu, ezin pezete batu! Ezin izen zan pezete batu! Botakar egon zan gure genero duzti, botakar. Eta hori triste da, e? Triste da hori. Eta gero, ademas, hori, "aldeana burra". Hori erremate, "aldeana burra".

3. Umetako bizimodua

- **Erref**: GTX-005/004
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:03:57. **Bukatu**: 00:05:37
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
Etxean beti euskaraz egiten zuten eta erdaraz ideiarik ere ez zeukan eskolara joan zenean. Txikitan, olgetan aritzen zen baina gutxi. Jaietan jatordu bereziek poz handia ematen zioten.

Transkripzioa
- [Aizukin] galdetu zeozer?
- Ia anai -arrebarik...?
- Ez, ni senide bakarra, bai. Bai, ta nik bere dekot alaba bat bakarrik, bai, bai.
- Txikitako kontuak, eskolak eta...
- Ba, eskolak, esan dotsuet e, gogorra izen zan, gogorra izen zan eskole horreitik, ze etxen beti euskera.
Gu juan, ni juan nintzen eskolara jakin barik berba bat bez erdera, eta izen zan gogorra, gogorra baino gogorrago izen zan. Baina, bueno, ha be ikisi zan, ta beste batzun antzen in genduz generok, euskeraz... ze esaten euren /esateuren/, gero entzun dot nik: euskera ya ein dune beti, torpek izen garela gero ikisten generok, baia ez, [beti izingo] dire, torpe danarako izengo da torpe danak uztera iten, nik pentsaten dot holan izengo dala, ezta? Danarako.
- [...]
- Ez, baia esaten, hori esaten euren /esateuren/! Eta gero, bueno! txikerratan, bueno, ze esango dotsuet /esangotzuet/? Ba olgaten gendun, joaten gintzen olgetan ta holan, joaten gintzen, itxi iten oskuen /itezkuen/ apur beten olgetan, baia asko ez, e? Asko ez. Ez, ez, ez, ez, behar in behar zan, behar in behar zan /bezan/. Eta jaietan,

ordun izetan ziran, bueno! Itzela! Andra Marik eta Gebonak izeten ziren itzelako! Eta zelau poza jan iteko! Estraordinario jateko poza! Edo ollo ollarra edo ollo edo zeozer in, eta bueno, saltuko modutik ain ona mahaia aurren parata, bai halan izeten zan, e! Halan izeten zan.

4. Maritxu teiletako

- **Erref**: GTX-005/005
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:05:37. **Bukatu**: 00:07:02
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Kantei buruzko azalpenak

Laburpena:
Hagina jausitakoan, teilatura botatzen zen eta kantatu egiten zuten, bota baino arinago. "Maritxu tailetako gona gorridune, hautsi hagin zaharra ta ekarri barrie" kanta abesten zuten.

Transkripzioa
- Eta gero hagiñek bere jausi iten jakuzen, ze persone makineri lengok eta oingok ez da kanbie ezer.
Genero asko kanbie da, baia hori bardin da, ta ja ja jausi iten zien hagiñek. Eta hemendik nik ikusten dot hemen amamak-eta holan esaten: “Ene, sí porque le han puesto... sí, el ratoncito Perez debajo de la almohada” ta ez dakit /ezdait/ zer. Guk hori ez gendun euki. Baia geuk be euki gendun, e! Geuk bere euki gendun. Jausten jakuzenen hagiñek, tailleture botaten zan hagiñe, tailleture botaten zan hagiñe, eta hari tailleture bota baiño lelao, kanta eiten zan.
- A bai?
- Bai, bai, kanta iten... bai, bai, [kanta iten zen]: “Maritxu tailletako gona gorridune hautsi hagin zaharra ta ekarri barrie”. Esate... bai. Eta botaten oskuzen aittek edo amak, ze, bai hagiñe, ze klaro, ze tailleture botaten zan... ber zan lez, ba, beti izeten zan laba ganera, ze baserri duztik eukiten euren /eukiteuren/ artaburuk igertuteko labe ondon. Eta [ha bajutxu] egoten zan lez, hara botaten zan hagiñe. Eta esaten: "Ta noz urtengo dau ba?" ta " Ba ez dakit [zein beste] egun lo ein ta urtengo dotsue / urtengotzue/", esaten daure. Baia gero ahaztu eiten zan eta hagiñek urten iten euen /iteun/. Baia guri ez oskuen /ezkuen/ imiten almuadan azpin ezer, e? Ez, ez, ez, ez, ez, ez.
- Baina polita, ez?
- Bai, guri ez oskuen /ezkuen/ ezer emoten, [azpiñen] azpin ez oskuen emoten ezer.

5. Aita gurdizaina, ama eta biak soroan

- **Erref**: GTX-005/007
- **Iraupena**: 0:01:31. **Hasi**: 00:07:50. **Bukatu**: 00:09:21
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:
Aita gurdizaina zen. Amak eta biek soroan egiten zuten lan eta esnea ere banatzen zuten Algortan.

Transkripzioa
- Ta aita non egiten eban ba biharra?
- Nere aitte izen zan karreteru, eta nire aittek egiten euen /eiteun/, Arrigunako hondartzati ataraten euen /atarateun/ harea obratara. Ze esango dotsut ta? Oin ha kamioiakaz ibilten zan modun, ordun idikez ta gurdiez ibilten zan. Eta amak eta nik solon. Bai. Eta, ademas, baserri gehienak andrak eta umek eroten eurezen e!, ze gizonak batabatena in behar euren zeozer, ze haraz ezin bizi zan, haraz ezin bizi zan baserrikoaz inposible izen zan bizite. Ez zan bizi izan haraz.
- Ta gero esneaz bere ibiltzen……
- Bai, bai, denporan, ezkondu arte ibili nintzen ni esneaz. Bai, ezkondu arte ni ibili nintzen esneaz, eta gero hasi zan ama esneaz. Eta ni lotzen nintzen etxen, ze nik iten [nenun] etxeko eta kanpoko amak baino fazillao, eta horreitik. Eta gero, ba, kendu ein genun ha baie bere eta.
- Eta esnea non? Ze lekutan sald…?
- Algortan! Bai, bai, bezerok euki genduzen, etxek, etxek hartute, ta ya esta. Baina ni hasi nintzena esne saltzen, kuartillu bet erreal bat. Baaai, kuartillu bet erreal bat. Ta ezetuten gendun ba Algorta dusti. Nik oin bere jente... zer esango dotsut / zesangotsut/? Oingo jente gazte ez dot ezetuten, baia [inon llobe dan] ta holan ba asko, asko, askonak dakidez ordureko, bai, orduko. Bai, askonak dakidez, bai.

6. Zinemako filmak gaztetxoentzat

- **Erref**: GTX-005/008
- **Iraupena**: 0:00:33. **Hasi**: 00:09:21. **Bukatu**: 00:09:54
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:
Zinemara joaten zen. Filmak aipatzen ditu.

Transkripzioa
- Ta olgetan eta, zinera eta hori bai…?
- Bai zinera joaten gintzen domeketan, baia dustiten be ez, ezta? Joaten gintzen, erreal bi kostaten zan [infantil], hara gallinerure. Bai, baia ordun ordubietan joaten gintzen, ordubietan joten gintzen bai, bai.
Bai ikusten genduzen bai ordun “el Gordo y el Flaco" ta Sirley Tenple ta Mike Roni ta... Bai, bai, ikusten genduzen, bai, asko gustaten jakun, e!
- Eta Nodoa?
- A! Nodoa ai!…. Hori, hori, bueno horroroso izan zan hori! bueno sartuten y además, ene!, gerran bere zelan pasa genduzen, e!

7. Bonben eta moroen beldur

- **Erref**: GTX-005/009
- **Iraupena**: 0:02:06. **Hasi**: 00:09:54. **Bukatu**: 00:12:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Hamahiru urte zituen gerra hasitakoan. Hegazkinak zetozenean, etzan egiten ziren alkatxofen azpian. Moroak zetozela esaten zieten eta asko beldurtzen ziren.

Transkripzioa
- Pasa gendun gerran bere, e! Hamahiru urte euki neuzen nik gerran. Eta etorten ziren abioiak, ezta? Abioiak etorten ziren, eta horra trinitariotan egoten zan sirene, ta lelao alarma, alarma joten euren /joteuren/, ba, honenbeste zarata, eta gero peligro. Ta guk asko lelao ikusten genduzen, ta han etzunde egoten ziren alkatxofa batzuk eta han entzunde egoten gintzen. Beittu zelao ignorantek, ezta? E? Han eon behar dala ta, e? Han eon… Eta gero beste genero bat. Gero ait…., gu botaten euskuzen hementxe hor… hor…. horra nahiko ez. Badakizue azkorri bideneti? Ta hor soldaduk egon ziren hor. Eta egon ziren artilleruk egon ziren hor, artilleruk egon ziren. Eta bueno! Hori explote errebenteu egingo dule eta ez dakit /eztait/ zer eta ez dakit /ezdait/ nor eta ene! morok datozela eta... Gerran bildurrik ez [gendun] eukiten, baina moroena! Ez dakit zer pentsatzen... Bai, morok datozela! ahh! Morok! Bueno, piztik izengo balitikeze modun! Ta jakin bere ez zer diren morok! morok datozela. Eta badakizue Bilboko saneamentu nondik datorren, horti estaziñoti ta zelan dauz malakate batzuk? Malakate deitzen da. Eta hortik dator Bilboko saneamentu eta desenbokaten dau hor tunel bokan. Ta bueno. Iminten oskuen ogi baltza zatitxu baten, ze ogi baltza zatitxu bet emoten [eben], bakoitza... erraziñoan emoten euren / emoteuren/, eta han iminten oskuen txorizo apurtxu bet edo holan, eta egune pasaten joaten gintzen hara tun…, hara, zerara, malakatera, hara malakatera. Kontu atara, bonba bat [hara bota baeuen], zu, [hori mamu be] sartuko zan hara barrure, ezta? Han egoten gintzen. Usiñe ba kontu atara zelao usiñe han! E? Eta umedade horroroso! Eta han, han pasaten gendun denpore. Eta gero, bueno, sartu ziren, buenooo, eneee! "Ala rojillas", "ala rojillas!" ibilti oskuzen ha, ze manifestaziñoko egoten zirenez, igual ba Madril [jausi dela], ta kanpaiak igoten ziren ta "ze pasa ete da? ze pasa ete da?", "Ba Madrile jausi da" esaten euen, "Madrile jausi da".
Eta, bueno, ba, ez zan lez besterik egon, ba, batzuten joaten gintzen igual Algortara-edo manefestaziñora ta, bueno, bultzukadak horrorosok emoten oskuzen.

8. Goiherri eta Beherri

- **Erref**: GTX-005/013
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:14:48. **Bukatu**: 00:16:33
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:
Getxon bi zati zeuden: Goiherri eta Beherri. Elizan oraindik ere bereizketa egiten dela dio.

Transkripzioa
- Hau Getxo, bai. Ademas dau, Getxon bere dau alderdi bi. Zu, zu bizi zara Beharrin, zu zara Beharriko eta gu gara Goiherriko. Eta eleixan bere, hori diferente segiten da, e!
- Elizan bere?
- Bai, neuk esango dotsut /esangotzut/. Gu bagoaz elixara, ezta? eta sartzen gara, sartzen gara Beharriko ateti, e?, zuon alderditi, zuon alderditi sartzen gara.

Goiherriko persona bat ez da lotuko han aurkiten, beren lekure dator Goiherrire. Bai, eta hori, hilten direnak bere hemeti goiti Goiherrikok, hilten direnak, aitu, beste alderditi. Asko da dotoreao! Asko da dotoreao ha, ze handi deko eleixek ha beran ha sartukera dusti. Guk ez, guk hemetik gure lekutik guk. [Horrek portiko itsu-itsuti], baia gure lekuti. Eta handi etorri, ezta?
Etorri Algortati, lehen esan dotsut... Pasa, atrabiesa [eleixeko] dusti, baia Beharriko alderdin [ez gintekez] para, gu geure lekure. Eta hango behekok bere ez dire pase... etorriko gure alderdire, e! Ez, ez, ez, ez. Hori dau nik ez dakit hori diferentzi zetako... zeeitik daon. Behekok beti izen dire fintxuagok, e!
- Bai, eta euskera gitxi, ez?
- Bai, beti gitxitxuao, gitxitxuao ein da, bai, gitxitxuao. Ta fintxuagok…., aurek pentsa edo. Edo aurek ez pentsa igual, geuk pentsa fiñao direla igual. Aurek igual ez, geuk igual. Bai, ze baserri, bere, diferenteao izen da hango; han bere egon dire solok eta eiten euren /eiteuren/, baia hemeko lez ez. Ez, ez, ez, ez hemeko lez ez. Eta hemen erriberara joaten gintzen, iketza eiten eta koka eiten.

9. Hondartzan ikatza eta egurra batzen

- **Erref**: GTX-005/014
- **Iraupena**: 0:01:14. **Hasi**: 00:16:33. **Bukatu**: 00:17:47
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendiko bilketak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

Laburpena:
Azkorri esaten zaion hondartzari Gorrondatxe esaten zioten, eta kainoiaren azpikaldeari Batx. Ikatza eta egurra batzen zituzten han.

Transkripzioa
- Ze oin esaten da "la playa de Azkorri", ezta? Oin esaten da "la playa de Azkorri". Baina hori guretzat izen zan, alderdi bete, oin Azkorri esaten dana, guretzat izen da Gorrondatxe, Gorrondatxe eta kainoien azpiko izen da Batx. Eta hemen kañoien azpin urteten euen /urteteun/ iketza, egurre, koka ta holan.
Ze, garbituten eurezenean /garbituteurezenen/ ibaia garbitu eurenean / garbitunenen/ gandilek eta gabarrak eta holan, hor botaten eurezen /botateurezen/ eta gero urten eiten euen /eiteun / eta hemeko jende, goierriko jende dusti joaten gintzen ba, iketza eta egurre ta, horra eiten, horti, bai. Baina, klaro, hor bai ein baina gero altxau in behar zan, e! Altxa ein behar zan, e!
- Eta nola? Zelan altxatzen...?
- Ba egozan, handi azkorriti egon da beti bide, baina atarakon basatze ta holan egoten zan, astok be ezin ibili eta txikon edo burdini kargatxuk eta ahuntzen ha bidetati. Ahuntzen bidetati. Oin ez dakit badauz bere horrek bidek; egongo dire oin bere, ni aspaldi ez naiz joan baina egongo dire. Ez zin sarratuko horrek bidek, baina ez da egongo fasil ibilte e? Ez da egongo fasil. Bai.

10. Amarekin hondartzara

- **Erref**: GTX-005/015
- **Iraupena**: 0:00:42. **Hasi**: 00:17:47. **Bukatu**: 00:18:29
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

Laburpena:
Amarekin bainuak hartzera joaten zen bederatzi egunez, abuztuan.

Transkripzioa
- Ta hondartzara eta holan joaten ziren, joaten zinen?
- Ba, bai joaten gintzen, baina... joaten gintzen... ze esango dotsut /esangotsut/? Por ejemplo, artojorrak eta generok egiten zirenen eta holan, joaten gintzen amaz bederatzi egunen baiñu hartzen, bederatzi egunen, bai.
- Baiñuak hartzen?
- Baiñuak hartzen, bai.
- Eta noiz, noiz izaten zan?
- Bai izango zan hori, ba, ze esango dotsut /esangotsut/ ba? Andra Mari aurren edo holan, igoal abustun Andra Mari aurren edo holan, bai, egoten gintzen. Baina jende barrioko jende dusti joaten zan, e? Joaten zan, bai. Ostantzen bakarrik ez oskuen / eioskuen/ itxiten joaten. Eta guretzat oin hasi da hondartza, ostantzen plaie, plaie gora eta plaie behera. Bai.

11. Andra Mari jaiak eta Aingeru Goardakoaren eguna

- **Erref**: GTX-005/016
- **Iraupena**: 0:02:51. **Hasi**: 00:18:29. **Bukatu**: 00:21:20
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:
Andra Mari jaietan gonbidatuak izaten zituzten etxean eta erromeria ere izaten zen. Beretzat onena gozogilea izaten zen. Aingeru Goardakoaren eguna. Su artifizialak botatzen zituzten. Etxeetan giro handia sortzen zela dio.

Transkripzioa
- Ta Andra Mari festetan ta holan, nola, nola izeten ziren festak Andra Mari? ze oin ez dago ezer.
- Bueno oin ez dao ezer, baia ordun be ez zan egongo asko gehaorik, baia, ez zan lez egon beste generorik, guri eretxi iten oskun ha, bueno! Itzelataringo! Ba zer egongo zan ordun bere ba? Ba onena etorten ziren aitxitxe ta amama, Berangokok izen ziren, eta konbideduk etxera. Eta erromeri, erromeri. Eta hamarretako mezara igon, eta gero, klaro, egongo ziren, ba, jantzarik egoten ziren. Eta ze esango dotsut / esangotsut/ ba? Gero, andrak horrek ha kantaruk burun ha eroten ha beteriki agarra barik nok eroten ituzen. Bai, egoten ziren. Ta horra jente... Ta guretzat onenak karameleruk. Guretzat onena karameleruk, bai, harek onenak.Ta, ostantzen, erromeri. Ta egoten zan, ba, Andra Mari hasten zan San Isidro egunen. Ta gero Andra Mari ta San Roke, eta gero Angeru Goarda egote zan, eta oin horrek be kendu ditue. Oin ez dago.
- Ta hori Aingeruarena edo hori noiz zen?
- Ba oin lehengoan izen da.
- Hori San Miguel edo..
- Ez, ez, ez, ez, ez, oktubre lehenengo egune izeten da. Bai. Eta horreitik aurten bere egon da han ha. Bai, han bentan ondo-ondon [dao] ermitatxu bet eta horretan egunen han eiten da meze. Han ermitatxun, bai. Eta, klaro, oin ha eiten da

diskretutxu dusti, ze lehen hori angeru ekarten zan ha eleixara, ta gero hurre egunen, hurrengo domekan eroten zan prozesiñora kantetan ta hara ermitatxure, ta diferente izen zan, bai.
- Orain ez dago ezer e….
- Bueno, meze egoten da bakarrik, ostantzen... Bai, meze bai. Bai, bai, meze bai egoten da. Baia ordun bere Angeru Goarde izeten zan, bueno! Beharrik ez zan iten eta beti izen zan polito izeten zan, ze Angeru Goarde egunen eroaten zan, hori, angeru eroaten zan eleixara eta han egoten zan domekara arten, eta gero domeka arrastin, errosario osten, prozesiñon baxaten zan ostabere beren lekure. Bai, bai. Ta, ostantzen, gauetan gero, ba, ze esango dotsut /esangotsut/ ba? Gero berbenasn ze egoten zan, ba? suek, oin modun, suok. Baia ene! zelao irrintzi sueri! Itzelataringok! Baia buenooo! ene! ixete zan. Ta ez zan ixen ezer baia guretzat asko izen zan, ze guk ez gendun euki besterik. Oin seme "ahh oin enoa, telebisiño ikusten lotzen [...]". Ordun ez zan egon ezer, ez zan egon ezer, ezer ez zan egon. Baia etxetan armoni itzela egon zan ordun, e! Bai, bai, bai, bai. Negun ta holan bestalde bestaldekokaz berbaten ta itzelako kontuk kontaten ta, bai, itzelataringoko egoten zan. Umeri ez... asko ez oskuen igoal itxiten, ezta, ze entzuten ta holan, ez oskuen itxiten, baia beste armoni bet egoten zan, bai. Denpora txarratan ta holan, negun? itzelako izeten zan, bai. Bai, diferente, diferente oin modun.

12. Nobioak ezkutuan

- **Erref**: GTX-005/019
- **Iraupena**: 0:03:41. **Hasi**: 00:25:26. **Bukatu**: 00:29:07
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Itsasoa » Nabigatzea

Laburpena:
Bere senarra merkantzia-ontzian ibiltzen zen. Tarteka senarrarekin joaten zen. Gurasoak itxiak ziren nobio kontuetan. Bikoteak hormaren atzean ezkutatzen ziren elkarrekin egoteko.

13. Alabaren erditzea eta elizara sartzea

- **Erref**: GTX-005/024
- **Iraupena**: 0:03:31. **Hasi**: 00:32:36. **Bukatu**: 00:36:07
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak

Laburpena:
Alaba jaio zenean, senarra ikustera etorri zen. Etxean izan zen erditzea, gogorra. Elizara sartzea.

14. Bizimodua zelan aldatu den

- **Erref**: GTX-005/028
- **Iraupena**: 0:02:11. **Hasi**: 00:42:42. **Bukatu**: 00:44:53
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:
Senarra itsasoan zegoen bitartean, berak soroan lan egiten zuen eta plazara joaten zen saltzera. Bizimoduaren aldaketa handiaz berba egiten du.

15. Artoa, indaba eta patata

- **Erref**: GTX-005/029
- **Iraupena**: 0:04:37. **Hasi**: 00:44:53. **Bukatu**: 00:49:30
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:
Artoa, indaba eta patata asko jaten zuten. Artoak labean ihartu, garandu eta irina egiten zuten errotan. Ume zirela tranpa egiten zieten azokan bezeroek.

16. Getxo lehen

- **Erref**: GTX-005/030
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 00:49:30. **Bukatu**: 00:52:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak

Laburpena:
Getxon baserri batzuk bakarrik zeuden. Denak ziren ezagunak, familiakoak moduan. Bideetan lokatza handia egoten zen.

17. Euskararen transmisioa

- **Erref**: GTX-005/032
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:54:18. **Bukatu**: 00:56:38
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:
Euskararen transmisioaz berba egiten du. Bakoitzak bere moduan baina egitea dela garrantzitsuena dio.

18. Batua ulertu ez baina beharrezko

- **Erref**: GTX-005/033
- **Iraupena**: 0:02:08. **Hasi**: 00:56:38. **Bukatu**: 00:58:46
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:
Telebistako euskara ez duela askorik ulertzen dio. Batua beharrezkoa dela uste du baina ez dagoela ikasten hasteko moduan. Asteko egunak esaten ditu.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-11-25

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com